



**KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ**  
**HERRI ADMINISTRAZIOAN, ARLO JURIDIKOAN ETA KRIMINOLOGIAREN ESPARRUAN**

**GOBERNANTZA EREDUAK GENERO IKUSPEGITIK**

*Erantz Saez de Egilaz Ramos*

**AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Kontzeptua.- 1.Kokapena.-2.Definizioaren hautua.- III.Gobernantza mailak eta erakundeak.- IV. Genero ikuspegia barneratu beharra.- V.Ondorioak**

## I. Sarrera

XXI.Mendea iraultza feministaren mendea ei da. Horrela aldarrikatzen dute batzuek, eta halaxe berretsi dute azken urte eta hilabeteetan albistegiek. Emakumeen aldeko borroka gure bizitzako esparru gehienak hartu ditu, eta edozein gai dela ere hizpide duguna, problematika hau ikustarazteko beharra sumatu dugu askok. Modu desberdinetan eta hainbat bide erabiliz egiten ari da ekarpena ildo honetan, eta emakumeen eskubideen aldeko lanketak gure bizitzako esparru denak hartzea nahi badugu, gobernantza ereduak genero ikuspegitik aztertzea ezinbesteko da. Izan ere, gaur gaurkoz, gobernantzen arloan halako lanketa berezitu bat egitea beharrezkoa dela ziurtasun osoz adierazteko tenorean gaude.

## II. Kontzeptua

### 1.Kokapena

Gobernantzaren definizio zehatzik ez da existitzen. Testuinguruaren arabera, gobernantzaren kontzeptua bera ere aldatu egiten da. Abiapuntu modura, “Real Academia Española”-ren arabera, gobernantza gobernatzeko akzio eta efektua da. Adiera hau erabat objektiboa da, baina kontzeptu orokor honek ez du bere horretan gobernantzaren nolakotasunean sakontzen, eta ez du garrantzia politikoa plasmatzeko balio. Izan ere, gaur egun, gobernantza kontzeptuaren inguruko ulerkera bat eta bakarra eskaintzea ezinezkoa da. Kontzeptu honen inguruan ziurtasun osoz esan daiteke definizio aunitz dituela eta, norberak ondotik ezartzen dion adjektiboaren arabera irismen eta zehaztasun desberdina izan dezakeela.

Gobernantza kontzeptuaren jatorria aspaldikoa da. Haatik, XX.Mendean garrantzia nabaria hartu zuen, eta askoz gehiago erabiltzen hasi zen. “*Gubernare*” hitz latindarrean du jatorria, eta pilotatzea edota gai publikoen erabilpena esan nahi du. Hala ere, testuinguru politikoan emandako aldaketa guztiek izugarri mamitu dute kontzeptu honen edukia, eta globalizazio eta neoliberalismoarekin hertsiki lotuta dago. Hasierako definizio neutrotik abiatuta, gobernantza gobernatzeko akzio edo efektua bada, gobernantzak gobernatzeko prozesu horretan hartzen diren erabakiei egiten die erreferentzia. Hartzen diren erabakiek sekulako eragina dute alderdiengan; erabakia hartu duenaren kasuan, haren erabakiaren legitimitatearen inguruan zalantzak sortu daitezkeelako, eta herritarrengan, erabaki horren ondorioak jasan behar dituztelako.





Horrela, bada, eztabaida erabakiak hartzeko prozesuaren ingurukoa izango da. Hots, prozesu horren formaren inguruan ados jartzeko ezintasunaren ondorioz, gaur egun gobernantzaren kontzepzio bakarra egotea ezinezkoa da. Izan ere, erabakiak hartzeko prozesuan bi alderdien arteko oreka aurreikusi daiteke, edota horren kontra, erabakiak alde bakartasunez eta gutxi batzuen artean hartzeko apustua berretsi. Beraz, prozesu horietan alderdien artean ematen diren orekei (edo desorekei), eta batez ere, subjektuei erreparatzea beharrezkoa da.

Alde bakartasunez, eta indarrean dagoen sistema ekonomikoaren interes konkretuei jarraitzen dieten gobernantza ereduak gehiengoa dira gaur egun. Gobernantzaren ulerkera honen bilakaera ezin da ulertu Banku Mundialak zein Europar Batasunak egindako interpretazioak kontuan izan gabe. Banku Mundialak<sup>1</sup> 1992.urtean gobernantza tresna modura definitu zuen, helburua gobernu baten ahalmen teknikoak eta ekoizpen ekonomikoak gainbegiratzea izanik. 1989.urtean erabili zuen lehen aldiz kontzeptu hau erakunde honek, eta garai hartan, helburua garbia zen: Estatuaren esku hartzea murriztea, esku hartze hau errekurso publikoen kudeaketa teknikora mugatuz. Ideia horri jarraituz eraiki da gobernantzaren ulerkera, ez soilik Banku Mundialaren jardunean. Europar Batasunari dagokionean, 2001.urtean gobernantza erreformatzeko ahaleginak egin zituen, horretarako Liburu Zuria<sup>2</sup> baliatu zuen, eta gobernantza eraginkorra demokraziarekin eta bestelako printzipio batzuekin lotu zituen. Alabaina, Europar Batasunaren defizit demokratiko nabariak erreforma horren baliozkotasuna zalantzan jartzen du, bai eta Liburu Zurian plazaratutakoaren eraginkortasuna.

Gaur gaurkoz, Banku Mundialak zein Europar Batasunak defendatzen duten kontzepzioa hegemoniko bihurtu da. Erakunde hauek jarraitzen dituzten interesen arabera ulerkera konkretu bat hedatu den arren, gobernantzak bestelako interpretazio posibleak ere baditu. Hala bada, irakurgai dituzun lerroetan gobernantzaren definizio zabal baten aldeko hautua egingo da, genero ikuspegia barneratzea beharrezkoa dela kontuan izanik.

## 2. Definizioaren hautua

Arestian aipatu den eran gobernantza erabakiak hartzeko prozesuekin identifikatzen dela ulertuz, kontuan izan behar da erabaki horiek zuzeneko eragina dutela norbanakoengan. Kontzeptu honen inguruko definizio zehatz bat eskaintzea zaila suertatzen da, autore bezain beste definizio existitzen direlako. Horrelaxe, artikulua honetan gobernantza erabakiak hartzeko prozesu modura identifikatzen da, baina kontuan izanik erabaki horiek emakume zein gizonek beraien bizitzak antolatu eta aurrera eramango dituzten jardunak diseinatzeko balio dutela. Garrantzitsua da bereizketa hau egitea, orain arte emakumeen problematika isilarazi egin baita.

Erabakiok hartzeko unean, interesa duten aktoreek nola jarduten duten eta prozesua nola antolatzen den erabakigarria izan da, sistema horren kalitatea islatzeko adierazle modura identifikatu baitaiteke honako datu hau. Prozesu hauetan instituzio formalek zein informalek hartuko dute parte, baita herritarrek zein herritarrek osatzen dituzten gizarte zibileko bestelako eragileek. Hala bada, interes orokorra islatzea izan behar da gobernantzaren azken emaitza, erabaki hauek gizon eta emakumeen bizitzetan zuzenean eragiten dutela kontuan izanik.

<sup>1</sup> Definizio zehatza: “*garapen prozesuan dauden herrialdeetan boterea gauzatzeko modua errekurso ekonomiko eta sozialetan*”, BANKU MUNDIALA, *Governance and development*, Washington D.C, 1992.

<sup>2</sup> EUROPAKO BATZORDEA: “*La gobernanza Europea. Un libro blanco*”, Brusela, 2008.



Azkenik, euren artean interdependentek diren gobernantza maila desberdinak bereizten dira; hala nola, etxebizitza edo familia, komunitatea, gobernu lokala, gobernu nazionala eta gobernantza mundiala.

### III. Gobernantza maila eta erakundeak

Gobernantza maila desberdinetan ematen da, eta horren arabera aktore eta instituzio desberdinek hartzen dute parte. Gobernantza euren artean konektatuta dauden bost mailatan ematen da: etxebizitza edo familia, komunitatea, gobernu lokala, gobernu nazionala eta gobernantza mundiala.

Erabakiak hartzeko prozesuak eta hauen inplementazioa, maila desberdinetan ematen da eta mailaren arabera instituzio edo aktore desberdinek jarduten dute. Horrela, bada, badirudi gobernantza hitzarekin burura etortzen den lehen instituzioa gobernu dela, baina errealitatea bestelakoa da. Aipatu behar da ere, erabakiak hartzeko prozesuak ez direla era isolatuan ulertu behar.

Genero ikuspegi batetik azpimarra egin behar da bost maila hauen bereizketan. Eredu lokalean gobernu lokaleko instituzioez gain, gobernantza erabakiak hartzeko etxeko prozesuetan ere ematen da. Etxebizitza edo familia gobernantza maila bezala identifikatzea oso garrantzitsua da. Erabakiak etxean ere hartzen dira, eta eremu horretan hartutako erabakiek eta batez ere, formek, zuzeneko isla dute gizartean.

Orain arte etxean gertatutakoa eremu pribatura zokoratu da, eta eremu hori zuzenean emakumeekin lotu izan da. Halaber, eremu publiko eta pribatuaren arteko muturreko bereizketa, desberdintasun pribatu guztiak estali eta zalantzan ez jartzeko modu bat izan da. Baina, publiko eta pribatua izan denak, nahitaez izan du eragina gizartea bera antolatzeko eran, baita politika ulertzeko moduan ere (eremu publikoan; politikan, instituzioetan... gizonek hartu dute parte).

Iniziatiba honek ordea aurrera pauso bat suposatzen du, nolabait eremu pribatua publiko bihurtzen dugu, bertan gertatzen denari garrantzia emanez eta gobernantzaren kasuan duen zeresana aitortuz. Maila hau integratzea ezinbestekoa izango da parekidetasunaren alde egin nahi bada.

### IV. Genero ikuspegia barneratu beharra

Gobernantza ereduak genero ikuspegitik lantzea gaur egungo gobernantza ereduaren kritikarako parada izan daiteke, hauek orokorrean genero ikuspegia ez dutelako bermatzen. Aitzitik, kritika baino genero ikuspegia barneratzeko beharra aldarrikatzea da garrantzitsua. Gobernantza kontzeptu zabala da, baina hala izanik ere, gaur gaurkoz ikuspegi feministatik hutsune asko dauzkala ziurtatu daiteke. Emakumeok munduko populazioaren erdia baino gehiago osatzen dugu, eta historikoki ikusezin bilakatu gaituzte ia eremu denetan. Feminismotik kritika egin izan zaio eremu bakoitzari, baina aztergai dugun gaiaren kasuan badago zeresana oraindik ere.

Arazoa ordea ez da gobernantzaren arloan genero ikuspegia barneratu behar dela; arazoa muinean kokatzen da, gobernantzaren kontzepzioan bertan. Genero ikuspegia ez da zerbait osagarria, ikuspegi hau ez da besterik gabe txertatzen. Arazoa estrukturan dago, eta hori aldatu ezean nekez esan ahalko da gobernantzek feminismoari ekarpena egin ahal diezaioketela.



Gobernantza gizartea eraldatzeko tresnatzat jotzen bada, tresna horren diseinuan printzipio zehatz batzuk txertatzearen aldeko apustua egin behar da. Helburua ez da soilik emakumeak erabakitze prozesuetan parte hartzea, erabakiak hartzeko prozesu horien diseinua ezbaian jarri eta bestelako modu batzuk martxan jartzea posible dela ondorioztatzea baizik. Beharrezkoa da beraz gobernantzaren gaia genero ikuspegitik lantzea, zentzu horretan orain arte egindako akatsak identifikatzeko, baina batez ere, gobernantzak generoarekin egundoko zerikusia duela frogatzeko. Izan ere, gobernantza eremu publikoan zentratzen da, eta eremu horretan emakumeon papera gutxiesteko dagoen joera izugarri handia da oraindik ere.

## V. Ondorioak

Gobernantza ereduaren azterketak arrakala asko dauzka, eta guztiak lantzea beharrezkoa da. Genero ikuspegitik lanketa sakona egitea oso garrantzitsua da, orain arte mahaia gaineratu ez diren eztabaidak ikustarazi eta daukaten balioa emateko. Irakurri berri dituzun lerroetan gobernantzaren oinarritzko aspektuak ezagutzeko aukera izan duzu. Haatik, lanketa sakonago bat eskatzen duen gaia da honako hau, eta artikulua honetan ezin izan da luze eta zabal azalpenik eskaini.

Lan lerro hauek kontuan izanik, “Genero ikuspegia barneratuko duen gobernantza eredu baten diseinurako oinarriak” izeneko Gradu Amaierako Lana egin berri dut, eta lan hori oinarri hartuta etorkizuneko lan lerro modura identifikatu dut, aurrerantzean bide honetan nire ekarpena egiteko asmoz. Parekidetasunaren bidean tresna teorikoek duten garrantziaz jakitun, hausnarketarako tartea izan dut eta etorkizunean ere gai hau hizpide, nire ekarpen xumea egiteko prest nago.

Gai honen inguruan zertxobait gehiago sakondu nahi izanez gero, bibliografiaren atalean oinarritzkoak diren hiru irakurgai proposatzen dizkizut. Generoa eta gobernantzaren inguruko irakurketak ez ezik, feminisмотik hainbat arlotan ekarpena egiten duten irakurgaiak dituzu honako hauek, biziki interesgarriak eta lan hauetan sakondu ahal izateko beharrezkoak.

## Bibliografia

- BRODY, Alyson, “Género y gobernanza. Informe general”, *BRIDGE Development-gender*, 2009ko apirila.
- GOIKOETXEA, Jule, *Demokraziaren pribatizazioa*, Elkar, Donostia, 2017
- PÉREZ OROZCO, Amaia, *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Traficantes de Sueños, Madrid, 2014